


Espainian erabiltzaile-erregistroa baliozkotzea



Irakasle bat lehen aldiz eTwinning-en erregistratzen denean edo, erregistratu ondoren, ikastetxez aldatzen denean, erregistroa **baliozkotze-prozesu** batetik igarotzen da. Prozesua honetan datza:

- Irakasleari dagokion autonomia-erkidegoko edo hiri autonomoko eTwinning arduradunak jakinarazpen bat bidaliko dio posta elektronikoz ikastetxeko zuzendariari, erregistro-formularioan emandako datuak egiazkoak direla berresteko.
- Ikastetxeko zuzendariak, jasotako mezu elektronikoan adierazitako urratsei jarraituz, autonomia-erkidegoko edo hiri autonomoko arduradunari erantzungo dio, datuak egiazkoak direla berretsiko du, eta, datu horietako batzuk zuzenak ez badira, datuok eguneratzeko eskatuko du.
- eTwinning arduradunak LZNri erregistroa onartzen duela jakinaraziko dio.

- eTwinning LZNk erregistroa baliozkotuko du online plataforman.

Prozesua ahalik eta denbora laburrenean garatzeko, beharrezkoa da zuzendariaren datuak eguneratuta egotea ikastetxearen profilean. Gomendagarria da helbide elektroniko instituzionala erabiltzea, zuzendaritzan egon litezkeen aldaketek komunikazio-prozesua eten ez dezaten.